



Irailaren 27an Iñistorra elkarteak txistularia eta euskaltzalea omenduko du

2015eko irailaren 4a, 450 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

JUXTO EGAÑA, URNIETAR PRESTU 2015

## Sorabillan jaiak asteburu honetan, eta irailaren amaieran Sanmielak

Asteburu osoan zehar ekitaldi ugari burutuko da Sorabillan.

**G**oiburu eta Buruntza auzoetako lekukotza hartuta, Andoainen jaiak Sorabilla auzunean izango du jarraipena. Ostiral arratsaldeko 18:00etan abiatuko dira jaiak, txupinazoarekin. 18:30ean, berriz, Iturzaeta memorialaren palako errebantxa jokatu dute. Zikiro jatea antolatuta dute afarirako. Larunbatean Belkoango igoera edota haur ikuskizuna iragarri dituzte, eta igandean Nagore Arizaga eskubalo jokalariari omenaldia. Egitarau osoa, gehigarri berezian irakur daiteke.



Sorabilla jaietan murgilduko da asteburu honetan.

Sorabillako egitaraua eta jaietako argazkiak eta bideoak Aiurri.com webgunean ikusgai izango dira, udako gainerako

jaietan egin bezala. Aiurri.com webgunean jai guztien jarraipena egin da, uztaila eta abuztu zehar.

### SANMIELAK URNIETAN

Irailaren amaiera aldera Urnietako jaiak ospatuko dira, eta Udala egitarauaren azken xehetasunak lotzen dabil egun hauetan. Dagoeneko hainbat datu aipa daitezke. Jaiei hasiera nork emango dien jakina da dagoeneko. Udal Antzerki taldeak eta Bosko Anitz aisialdi taldeak botako dute aurtengo Sanmieletako txupinazoa.

Iñistorra euskaltzaleen biltzarrek, bestalde, IX. Iñistorra jaia antolatuko du irailaren 27an. Aurtengo omendua Juxto Egaña kulturilea izango da. Antolatzaileek egun horretako bazkarirako txartelak dagoeneko salgai jarri dituzte Guria eta Kantoi tabernetan.

[GEHIGARRI BEREZIA]



### Taldeek aurkezpena herriko plazan

Larunbat honetan UKE taldeko futbol atalak denboraldiko aurkezpena egingo du San Juan plazan. Saio ikusgarria prestatu dute.

[KIROL ALBISTEAK, 6. ORRIALDEA]

### Jarduera fisikoen ikastaroak

Urnietako eta Andoango kiroldegietan ikasturte berrirako eskaintza prest dute.

[AGENDA, 7. ORRIALDEA]

### Herri Bira, eraberritua

Irailaren 12an Herri Biraren edizio berria burutuko da. Aurtun, gainera berrikuntza nabarmenekin. Ibilbidea aldatu dute eta lasterketa laburra zein luzea aukeran izango da. Nordic Walking jarduera burutzeko aukera ere eskainiko dute.

[KIROLA, 6. ORRIALDEA]

## Andoaingo Guduaren antzezpena

Antolatzaileak eta antzezleak ikuskizuna prestatzeko azken txanpan sartu dira.

**I**railaren 12an, larunbatekin, Andoaingo eta Urnietako historian heriotz eta kalte ugari sorrarazi zuen "Andoaingo Gudua" antzeztuko dute. Entsegu betean dira, azken xehetasunak lotzen. 2013an bezala, ikusgarria izango da.



Guduaren antzezpena Larramendi Bazkunak antolatu du.

### IRAILAK 12, LARUNBATA GUDUAREN AGERTOKIAK

17:15. Zumea plaza.

Gudaroste karlista bertatik abiatuko da, antzezen txiki baten ondoren.

17:30. Goikoplaza.

Liberalen irteera, antzezen txiki baten ondoren.

18:00. Herrigunea.

Antzezenak Santa Krutz elizaren kanpoaldean, Kale Berrian edota Bastero plazan.

19:30. Goikoplaza.

Azken antzezena.

## HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

2015-2016 ikasturtea - Matrikula irekita irailaren 18ra arte

- Modulu guztiak: auzokoak eta auzoak
- Moduluak: 10, 15 eta 20 ordu
- Ela atarrietan: HABE, PERFILAK, EGA

Kanpoan: 67  
Larramendi bazkua  
Tel.: 941 33 18 96  
E-mail: euskaltegia@hernani.es  
Batzar-ordainak: 09:00-11:30 / 16:30-19:00



## IÑISTORRA EUSKALTZALEEN BILTZARRAREN ERABAKIA

# Juxto Egaña

## Urnietar Prestu 2015

Uztailaren 22an egindako batzarrean hartu zuen erabakia Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak. Aurtengo Urnietar prestua Juxto Egaña Larrañaga izango da, irakasle, txistulari eta kultur eragile aski eza-

guna Urnietan eta hizkuntzen pedagogian aditua, duela gutxi erretiroa hartu arte HABE erakundearen jardundakoa (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea).

**E**z da urnietarrik Juxto Egañak herrian burutu duen jarduna neurri batean ala bestean ezagutzen ez duenik, baina ez dira denak gogoan izango dutenak 1969. urtean Urnietara iritsi zenetik gaur arte jatorriz azkoitiarra den urnietar honek egin duen ibilbide luze bezain oparoa Urnietan.

Azkoitian, 1947. urtean jaioa, majisteritza ikasi zuen lehenik Egañak eta, ondoren, Filologia Erromanikoan lizentziatu zen. Juxto 1969. urtean iritsi zen Urnietara, jaio berria zen Egape ikastolara lanera, hain zuzen ere ikastolak bere lehenengo lau gelak legezkatzea lortu zuen urtean, eta hamabi bat urtez bertan jardun zuen, goi zikloko irakasle eta hainbat urtez zuzendari gisa; beraz, bere egitekoa funtsezkoa izan zen, orduko beste guraso eta irakasleekin batera, aurrera egiteko bidean arazoa eta traba besterik izan ez zuen ikastolaren jardunean. Baina Juxto Egañak berehala sumatu zuen, gainera, bazela beste hainbat hutsune herrian bete beharrekoa, 70eko hamarkadan batek behintzat indar handia hartu zuena: helduen euskalduntze eta alfabetatzea. Herrian gisa horretako eskaintzarik ez zegoenez Juxto Egañaren eskutik antolatu ziren helduak alfabetatzeko lehenengo saioak Urnietan, eta esker onez gogoratzen du ahalegin hori gaur egun berearekin euskaldundu eta alfabetatu zen hainbat urnietarrek.

Txistularia bikaina da Juxto Egaña, eta horixe izan zen sumatu zuen beste hutsuneetako: loratzen ari zen txistularien jarduna Euskal Herri osoan barrena, ez ordea Urnietan. Beraz, herrian txistulari gisa jarduteaz gain, kimu berriak prestatzeari heldu zion Ikastolan bertan hasita, eta ikasle talde zabal bati txistua jotzen irakatsi zion, urteetan eutsiz



Egaña, besteak beste, Txanbolin txistulari taldeko eta Anabas musika taldeko sortzailea da.

*Jatorriz azkoitiarra den urnietar honek egin duen ibilbidea luzea bezain oparoa da*

txistua irakasteko eta txistuarekin herria girotu eta alaitzeko ahalegin bikoitz horri, urnietarrentzat musika alorreko eredu bihurtuz. Gaur egun asko dira Urnietan Juxto Egañarekin txistua jotzen ikasi zutenak, horien artean bada goi mailako txistularirik ere... Gainera, urteen poderioz herriko txistulari taldea osatu zuen bere ikasle izandakoekin, gaur egun Txanbolin izenarekin ezagutzen duguna.

Baina bere musika jardunaren ardatza txistua izan duen arren, areago joan da Egañaren eragina, beste hainbat musika ekimenen eratzailerik izan baita, eta horien artean aipatu behar da azken urteetan antolatutako Sanmiguel jaien atariko musika emanaldia, zazpi urtez Euskal Herriko zazpi herrialdeetako musika ondarea azal-

tzera bideraturikoa, urteko herrialde batena eskainiz. Ekimen horren ondorio izan zen Anabas Musika Taldea, non Egaña sortzaile eta partaide baita herriko beste musikari batzuekin batera.

Parrokiko Abesbatza ere urte askotan parte hartu zuen eta bertatik zuzendu eta antolatu zituen Gabonetako kanta ibilaldiak eta Santa Agedako bezperakoak, herriko kaleetan barrena ibiltzeaz gain Urnietan baserriz baserri aritutakoak.

Aipaturikoen gain, euskalgintzaren eta kultur gintzaren aldeko ekimen ugartan parte hartu izan du eragile edo laguntzaile gisa, bereziki 70eko eta 80ko hamarkadetan burutzen zirenetan.

Ogibidez, behin Urnietako ikastola utzita Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundearen goi-mailako arduradun gisa hartu zuen (HABE), erretiroa hartu arte bertako glotodidaktikako arduradun nagusia izan baita, hainbat ikerlan landu eta argitara emanez, eta ardura hori euskararen ezagu-

tza eta erabilera finkatzeko gaur egun aitzindariat jotzen den jardun baten baitan kokatu behar da.

### MEREZIMENDUAK

Beraz, laburtuz, Urnietar Prestu 2015 saria erabaki duen epaimahaiak aintzakotzat izan dituen merezimenduak:

- Egape Ikastolan irakasle eta zuzendari gisa ikastolaren egitasmoa oso garai zailetan aurrera ateratzeko lanorduz kanpo eta borondate hutsez egindako ahaleginagatik, eta ahalegin hori bideratu izanagatik hainbat jardura osagarri eta aberasgarri eratu eta antolatuz, ikastola herri osoaren ekimen gisa sendotzeraino.
- Helduak euskaraz alfabetatuz eta euskaldunduz 1970eko hamarkadan egindako ahalegin aitzindariagatik, eta, horren ildoan, euskalgintzako eta kultur gintzako beste hainbat ekimenen eragile izateagatik Urnietako herrian (Gabonetako abesbatza, Santa Ageda erronda, Sanmiele-

*'Urnietar prestu 2015' saria irailaren 27an jasoko du Juxto Egañak, Iñistora egunaren bazkalostean, Jakutegi plaza arratsaldeko 17:00etan*

tako jai-atariak, laguntza ekintzak...)

- Txistuaren soinua biziberri-tzeagatik gure herrian, eta txistularien hainbat belaunaldi berri sortu eta suspertzeagatik, txistuari dagokion maila eta lekua emanez musikaren alorrean. Urnietako Txanbolin txistulari taldea sortu izanagatik eta baita Anabas Musika Taldea ere.
- Eusko Jaurlaritzaren Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) glotodidaktika alorreko arduradun gisa egin duen lanagatik, erakunde hori aitzindari baita gutxituriko hizkuntzen irakaskuntzan.
- Amaitzeko, azken ia berrogeita hamar urteetan, Urnietako euskalgintzan eta kultur gintzan Juxto Egaña herri-tarrantzat eredu eta aitzindari izan delako jarduteko garaian.

### ERABAKIA AHO BATEZ


Aurten bost izan dira epaimahaiak esku artean erabili dituen hautagaiak eta horien artean aho batez hartu du erabakia. Bost hautagai horietatik hiru herriarrek aurkezturikoak izan dira eta beste bi epaimahaiak beraiek proposaturikoak. Antolatzaileek bere esker ona adierazi nahi diete proposamenak aurkeztu dituzten urnietarrei.

Urnietar prestu 2015 saria irailaren 27an jasoko du Juxto Egañak, Sanmiel jaietan ospatuko den Iñistora egunaren bazkalostean, Jakutegi plazako olatapean, arratsaldeko bostetan (17:00), behin lau bertso-larien saioa amaitu ondoren.


Irailaren 19an Miela batzordearen eskutik, gaueko 21:00etan

## Bertso afaria Oianumen

Sanmielak iristeko gutxi falta da, eta atarikoak gainean daudela esan daiteke. Miela batzordeak irailaren 19rako bertso afaria antolatu du, Agin Laburu eta Anjel Mari Peñagarikanoen parte hartzearekin. Hitzordua Oianumen ipinita dago, gaueko 21:00etan. Afariaren eta bertso saioaren prezioa 25 eurokoa da, eta izena emateko eta ordaintzeko epea zabalik dago Kantoin, Xauxarren eta Oianumen. Nahitazkoa da aldeaz aurretik izena ematea.



Anjel Mari Peñagarikano anoetarra.



Agin Laburu astigarragararra.

Datorren astearen hasieran proba saioak egiteko aukera

## Jarduera fisikoen ikastaroak

Izena eman aurretik, hainbat jardueretan proba egiteko aukera eskainiko dute hurrengo astelehenean eta asteartean. Proba saio hauetan parte hartzeko izena eman behar da Saroben (943 00 80 42).

•Ikastaroen eskaintza osoa: Gimnasia hipopresioa, pilates, yoga, defentsa pertsonala, gazte funky,...

•Hainbat jardueretan proba egiteko aukera:

**Irailak 7, astelehena:**

09:30-10:30 Pilates.

18:00-19:00 Hipopresioa.

19:00-20:00 Hipopresioa.

**Irailak 8, asteartea:**

10:45-11:15 Yoga.

17:00-18:00 Gazte funky.

19:00-20:00 Defentsa pertsonala.

•Matrikulazioa:

Irailak 9-18, biak barne.

•Ikastaroen hasiera:

Urriak 5, astelehena.

**KIROLDEGIKO ESKAINTZA**

Spinning, Aerobika, tonifikazioa, gimnasia, zunba, stretching-a, bodypump, fitness...

Matrikulazio epea: irailak 12. Kiroldegia: 943 00 83 28.

### BURUNTZANTZAN TALDEA 'BURRUNBAN 2015' TOPAKETAN



Aurreko asteburuan Nafarroako Atarrabian egin zen Euskal Herri osoko batukada taldeen bilkura. "Burrunban 2015" ekitaldian hamabi taldek esku hartu

zuten, tartean Buruntzantzan. Giro beroarekin ostiral eta larunbatean ikastaro trinkoak gauzatu ondoren, igande eguerdian Atarrabiako kaleak alaitu zituzten

parte hartzaile guztiak batera eskaintako emanaldian. Giro bikainean egindako topaketari amaiera eman zioten herriko plazan egindako bazkariarekin.

## Igerilekua zabalik

Urnietako igerileku irekia zabalik izango da irailaren 13ra bitarte. Asteleheneetik igandera arte zabalik izaten da, eguero, goizeko 10:00etatik

arratsaldeko 20:30ak arte. Bazkide ez direnek sarrera ordaindu behar dute; 21 urte artekoek 3,70 euro eta 21 urtetik gorakoek 6 euro.

## Vaquero, Bizikidetzazuzendari nagusi

Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Maribel Vaquero Bizikidetzazuzendari nagusi izendatu du. Uztailean Aldundiak igorritako oharrean diotenez, "nabarmenezkoa da Euskadina aitzindari izan den Urnietako Bake eta Bizikidetzazuzendari nagusi izendatu du".

Plangintzan arduradun politikozuzendari nagusi bezala eginiko ekarpena". 2007an hasi zuen Eusko Legebiltzarrean ibilbidea, eta 2012az geroztik ganbera horretako Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen lehendakari izan da".

## Batusalsa eguna

Irailaren 19an Urnietan, Buruntzantzan taldeak antolatuta, Batusalsa eguna ospatuko da. Horra, egitaraua: 10:00-13:00 Batukada tailerak 14 urtetik gorakoentzat.

13:00-14:30 Ikasitakoarekin toketada herrian zehar.

16:30-19:30 Kubako saltsa tailerra.

20:00-22:00 Dantzaldia Son Kandela musika taldearekin.

Iharduera guztiak dohainik izango dira.

Laguntzaileak: Egape ikastola, On Bizi eta Urnietako Udala.

## Antzerki tailerra, deialdia

Antzerki tailerraren ikasturtea urriaren 9an abiatuko da, eta hurrengo asteleheneetik aurrera izena emateko aukera dago, Saroben bertan. Tailerra ostiralero burutzen da, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Horrez gain, hilean behin larunbatearekin ere elkartzeko dira. Ikasturtea hiru zatitan banatu dute.

Laburbilduz, lehenengoan prestakuntza fisikoa jorratuko dute, bigarrenengoan adierazpen dramatikoak, eta hirugarrenean ikasturte amaierako antzezlanaren prestatuko dute. Gauzak horrela, ikasturtearen amaieran jendurereko antzezpene egingo dute.

Sarobe: 943 00 80 42.

## Jaietako txupinazoa

Udal Antzerki taldeak eta Bosko Anitz aisialdi taldeak botako dute aurtengo Sanmieleteko txupinazoa. Biak ala biak talde egonkorak dira Urnietan, eta kulturgingintzan nahiz aisialdian lan bikaina egiten ari dira. Bestalde, kartel lehiaketaren aur-

tengo irabazlea Nerea Uralde andoaindarra izan da.

**ALKATE TXIKIAK**

2006an jaietakoaren artean alkate txikiaren paperean parte hartu nahi duenak izena eman beharko du, irailaren 4a baino lehen.

## Egaperen bideo-klipa

Egape dantza taldeak bideo-klipa grabatu du udan, Urnietako txoko berezi edota adierazgarrienak dantzaren bidez erakusteko helburuarekin. Jarduera hori herriaren sorreraren 400. urteurrenaren baitan kokatzen da, eta aurkezpen ekitaldia Sanmieletan egingo dute.

Lehen egunean baserri eremu eta mendialdeko grabaketa saioak egin zituzten. Biharamunean, berriz, Idiazabal kalean, San Juan plazan, Langardan edota Santa Krutz ermitaren ondoan eszena berriak grabatu zituzten. Laster izango da, beraz, bideo-kliparen aurkezpena.

**IRAILAREN 1ETIK 15ERA MARIKULAZIOA ZABALIK**

Udal Euskaltegia

Irailaren 1etik 15era MARIKULAZIOA ZABALIK

Behar duzun informazioa: Tel: 943 00 80 42 • [eskualtegia@urrietako-udala.es](mailto:eskualtegia@urrietako-udala.es)



JON ANDER UBEDA # ANDOAIN

## Herri mailako politikaren garaia heldu da

**A**maitu zen ekaineko showa, uztailean itzali ziren kargu hartze ekitaldiak utzitako hotsak. Bukatu dira abuztuaren politikagintzak bizi dituen opor egunak. Iraila azkar batean igaroko da, eta eragiten hasi beharra dago. Ezagun da Andoainen gehiengoak lortzea oso zail bilakatu dela. Hauteskundeak, ordea, maiatzaren 24an izan ziren eta agintaldi berriari ulertezina izango da hainbat alorretan aurrerapausorik ez ematea. Gai garrantzitsuetan, nago herrian askok lehen bezala gauden inpresioa dutela: ez aurrera, ez atzera. Irailean hasita, ordezkari politikoen enpleguaren sorrera ahalbidetzeko eta enpresen egonkortzea errazteko eskualdeko garapen agentziaren alde ados jarri behar dute, inbertsioak zerrendatu eta finantzaketa lortzeko akordioak lortu behar dituzte, aurrekontu berria egin eta adostu behar dute, auzolotsa eragiten duen birziklapen tasa igotzeko neurriak hartu behar dituzte. Askoren artean, horietan zereginetako batzuk.

Hemendik aurrera gobernagarritasun eza justifikatzeko ezberdintasun politikoak argudiatzen jarraitzea aitzakia merkeen kategorian sartu beharko da.

Aurtengo lehen sei hilabeteetan garapen agentzia martxan jartzeko hiru alderdien arteko ika-mika esanguratsua izan da. Errepublikatu behar ez denaren adibide perfektua da. Agentzia martxan jartzea ezinbesteko ikusten zuten denek, alderdi bakoitzak bere egitasmoa hedabideen aurrean aurkeztuz. Agintaldiaren amaiera arte bakoitza bere proposamenari kateatuta agertu da. Emaitza? Zarata asko, eta mami gutxi. Bada,

*Hemendik aurrera gobernagarritasun eza justifikatzeko ezberdintasun politikoak argudiatzen jarraitzea aitzakia merkeen kategorian sartu beharko da*

oilar joko hori 2011-2015 agintaldiaren karpeta berean gorde behar da.

Ana Carrere eta EH Bildu agintean dira, aurreko lau urteetan bezalaxe, gehiengo osorik gabe. Beraz, gai potoletan adostasunak aurkitu beharko dira. Egoera ekonomiko zailari irtenbidea emateko EH Bilduk uraren kudeaketa Gipuzkoako Urak erakundeari laga nahi dio, hortik eratorritako diruarekin inbertsio planari ekiteko. Jeltzaleek eta sozialistek proposamen horri ez diote orain arte oniritziarik eman. Zerbitzua bere horretan iraunarazi edo erabat aldatu, uraren kudeaketari buruz batzuren eta bestearen argudioak ulergarriak izan daitezke. Eragiten hasteko, ordea, eztabaidaren garaia amaitzen hasi beharra dago.

Estrategia argi baten arabera, Udal politikagintzan norabide bat adierazi behar zaio herritarrari. Udal liburutegi berria, Udal zerbitzu berriak eta hobeak, Leitzaranen dugun altxor hori kanpokoan begietara erakartzeko plangintza eta abar. Ur hoditeria zaharkitua duen herria baina zerbait gehiago izan dadila Andoain. Horixe erregutu behar zaie 17 zinegotziei.

17 horietatik lanean ikusten ditudan Udal ordezkariak muga ekonomikoetan eta azpiegitura mailako arazo teknikoetan hainbeste murgildu dira... amets egitea ahaztu ote zaien galdetu behar diet hurrengoan.

Aurreko asteburuan ur zerbitzua eten egin zuten, hainbat orduz

## Ur hoditeria zaharkituak arazoak eman ditu udan

Andoaingo ur hoditeria zaharkituak arazoak ematen darrai, eta azken egunetan birritan lehortu dira hodiak. Abuztuaren 22an Gudariaren etorbidean matxura izan zen, eta abuztuaren 29an Kale Nagusian. Biak ala biak asteburuarekin izan dira. Beharginak ahalik eta azkarren ahailegindu ziren ur zerbitzua berrezartzeko. Azkenekoan, Doktor Huitzi eta inguruko kaleetan urrik gabe geratu ziren larunbat gauek igande arratsaldera arte. Matxura bikoitza izan zen.



Beharginak ur hoditeria konpondu eta ur zerbitzua berrezartzeko lanetan, aurreko igande goizean. Bideoa ikusgai dago aiurri.com webgunean.

Bertako ondare arkeologikoa berreskuratzeko azterlanak

## Burdina taldearen lanak Olazar parkearen inguruan

Abuztuaren 17an hasita, Burdina taldeko hainbat kide azterlanak egiten aritu zen Ubaran erreka bazterrean, Olazar eta Etxarri baserrien inguruan. Bertan antzinako haizeola bat egon zitekeen susmoa argitu nahi zuten, eta hondeamakina batez lagunduta, bilaketa lanetan aritu ziren.

Bestalde, azken urteotako ildoari eutsiz, Leitzaran haraneko Mustar aldean meategietan berreskuratzeko lanetan darraite.

Udan esku bete lan aritzen da Burdina taldea.




Lanean aritu zen taldea, argazkian. Tartean kide berriak daude.

Infantil mailako klubaren arteko txapelketa Malagan jokatu zen

## Goiburu golf txapelketa

Goiburu Golf taldea infantil mailako estatuko txapelketa da. Reale txapelketa aurreko astean jokatu zen Malagan eta Andoaingo taldearen ordezkari Oihana Etxezarreta, Amaia Ubide, Joseba Garmendia eta Tomas Begiristain bi eguneko txapelketan onenak izan ziren. Estu-estu ibili ziren Basozabal taldea garaitzeko. Estatu mailan, beraz, euskaldunak izan ziren jokoan onenak. Iaz txapelketa berdinean bigarren geratu ziren. Aurten, berriz, txapelketa. Zorionak!



Goiburu golf taldeko kideak txapelketan dagozkien sariekin.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Euzkoaren Zuzendaritza

2015, iraila



# Herri nortasunak goia jotzen du udako jaietan



Abuztuaren 10a - Tel: 943 69 45 16 - 666 44 83 21 - Asteasu

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

## IZURTZU ERRETEGIA

- Eguneko menua
- Karta
- Asteazkenetan itxita
- Erreserbak egitea komeni da
- Berezitasuna:  
Asteburutan babarrunak eta  
baserriko oilaskoa  
Etxeko postreak

# Hordagoa jota datoz Zizurkilgo festak

**MIGEL MARI ELOLA 'GORRI' ETA MANUEL LIZARRAGA ZIZURKILDARRAK HORDAGO BLUSAKO KIDEAK DIRA. ZIZURKILGO BLUSEN SORTZAILE IZATEAGATIK, OMENALDIA ESKAINIKO DIETE FESTEN HASIERAN.**

**D**uela 38 urte sortu ziren Zizurkilgo festetako lehen bost blusak. Hordago blusako kide batek ekarri zuen ideia Nafarroatik, nahiz eta inguruko beste hainbat herritan dagoeneko bazeudela aitatu duten. Hordago, Beti Argi, Beti Erne, Ipurtargiak eta Gautxoriak izan ziren lehen bost blusak eta egun ere festetako partaide aktibo izaten jarraitzen dute. "1978an, herria girotzeko asmoarekin herritarren artean blusak egiteko asmoa proposatu genuen. Gero, urteen poderioz izugarri zabaldu da eta egun blusa asko dago, urtero berriak sortzen direlarik", azaldu dute. Blusen sorrerak festa giroa indartu zuela diote, herritarren arteko norgehiagoka sanoa sortuz. Festak aurrekontu murriztarekin antolatzen zirenez, egitaraua blusen arteko ekintzekin betetzen zutela ere gogoratu dute, pentatloia, jokoak edota afariekin giroa sortuz. "Festek indarra hartu zuten blusen sorrerarekin eta pixkanaka festa batzordeko antolakuntza ere hasi ginen. Aurrez, udalaxe, Danena eta eliza inguruko guraso elkartearen artean osatzen zuten egitaraua eta gure borroka festak herritarren artean antolatzea izan zen. Helburua blusa guztiek antolaketan parte hartzea zen, baina ez zen batere erraza izan", gogoratu du Manuelek. Hala ere oroitzen onatzen dute, urte politena. Ilusio handia egin die aurtengo txupinazoan festa batzordeak omenaldia egingo diela jakiteak. "Itxusia da esatea, baina merezi dugu egin dugun bideagatik. Ez da gure kulpaz zaharrenak izatea", azaldu dute umoretsu. Eskerrak eman nahi dizkiote festa batzordeari eurekin gogoratzeagatik.

## MOTZEAN

### Festetarako gogotsu?

**Migel Mari:** Bai horixe! Goiz, arratsalde nahiz gau... Presentzia handia izaten du gure blusak festetan.

**Manuel:** Beldur pixka bat ematen du hasieran, adinean sartzen ari garelako. Baina festetan murgiltzeko gogotsu gaude. Festak pasatzeko sistema aspaldian pentsatu genuen: egunero Urkamendi elkartean bazkaldu eta afaldu ohi dugu, bazkari edo afaria txandaka antolatuz, bakoitzak txanda bakarraren ardura izanik. Abantaila handia da hori festa giroari eusteko.

### Zein ekintza duzue gogoko?

**MM.:** Bazkaritik hasita, oso polita izaten da koadrilaren eguna.

**M.:** Asto karrera, mozorro festa... Bertso saio oso politak antolatu dira azken urteotan bertsolari onak ekarri eta jende asko erakarri.

### Antolakuntza lanetan arituko al zarete?

**M.:** Aurten jubilatuta egin gaituzte lan horietatik, baina beti bezala, ahal dugun ekintza guztietan hartuko dugu parte.



Migel Mari Elola "Gorri" eta Manuel Lizarraga Hordago blusako kideak.

**MM.:** Ez zaigu iruditzen, baina urteak urterera doaz eta nabaritu egiten da.

### Kontatzeko moduko festetako pasarterik?

**MM.:** Goizean plastikozko turutekin diena jotzen aritzen ginenean, Asteasu alde-rako bidean gindoazela, txirindulari lasterketarako helmuga margotzen ari ziren lurrean. Taldekide batek pintura potoarekin estropezu egin, potoa lurrera bota eta errekan sartuta aritu zen gero galtzak garbitzen.

**M.:** Blusak sortu zirenean baratxuri zopa egiteko ardura hartu nuen eta elkartean aritu nintzen 200 lagunentzako zopa prestatzen. Banatzeko ordua iritsi zenean kalean inor gutxi geratzen zela konturatu nintzen, etxera joanak zirela ia guztiak, baita koadrilakoak ere. Zopa guztiarekin geratu nintzen, nahiko haserreturik, hurrengo urtean egingo ez nuela esanez. Baina urtea pasatakoan berriz egin nuen.

Gainerakoan, blusen arteko txantxa giroan, beleak deitzen gaituzte beltz koloreko blusa dugulako. Guk beste batzuei serbi-letak, blusa koadroduna dutelako.

### Eguna ala gaua nahiago?

**M.:** Eguna eta gauaren zati bat. Jada ez dugu aspaldiko gaupasarik egiten. 02:00ak aldera erretiratzen gara normalean. Baina beti geratzen da blusako errepresentazioen bat goizaldera arte.

**MM.:** Gurea eguna eta gaua izan dira, baina dagoeneko zer edo zer kendu egin behar.

### Dantza zaleak al zarete?

**M.:** Ez egunerokoak, baina eguna egokitzen denean, aritzen gara, bai!

**MM.:** Gure neurriko saioak egiten ditugu.

### Mozorro gauean mozorrotzeko asmorik?

**MM.:** Bai, urtero bezala.

**"Festek indarra hartu zuten blusen sorrerarekin eta pixkanaka festa batzordeko antolakuntza ere hasi ginen"**

**M.:** Aurten akelarrea irudikatuko dugu. Mozorroak guk prestatzen ditugu, artisau eran. Denetarik egin dugu: Olinpiadak, ezkontza bere elementu guztiekin, erro-matarrak koadriga eta guzti, Egiptoko faraoiak, AHTren polemikaren erdian zortzi bat metroko trena atera genuen...

### Festetan jateko?

**M. / MM.:** Elkarteko otorduak prestatzerakoan, txapelketa moduko bat dugu koadrilako kideon artean; nor bazkari edo afaririk goxoen egin preziorik merkeen. Oinarrizko plateretatik hasi eta bereziagoak ere izaten dira tarteka. Azken egunetan barazkiak agertzen hasten dira. Noizbait porru-patata eltzeza ikusitakoan txaloka hasi ginen denok.

### Eta edateko?

**MM.:** Helduak garenez, aspaldiko ohiturei eusten diegu.

**M.:** Egurdian txakolina edota sagardoa. Arratsaldean garagardoa eta gauean garagardoa eta txupitoren bat.

### Herritarrei mezurik?

**M.:** Parte hartzaile izateko; lasai ibiltzeko, istilurik sortu gabe eta, bereziki, ez dadila gertatzen ari diren emakumeen aurkako erasorik izan. Hordago blusako kide garenaz, duela gutxi galdu genuen Anttonio Labaien laguna gogoratu nahi dugu eta baita preso daukagun Orioko Gregorio ere.



Freddie Mercury eta Montserrat Caballe, abesbatzaz lagunduta, Bartzelonako Olinpiadetako ereserkia abestu zutenean.



# Musika, dantza, bertsoa... egitarau oparoa



Gozategi zuzenean arituko da ostiralean (irailak 4), gaueko 23:00etatik aurrera.



"Mariachi Azteca" musika ikuskizuna, jaietako azken egunean (irailak 9) iluntzeko 19:00etan hasita.

## Irailak 3, osteguna

### Jaien hasiera

**19:00** Danborrada herrikoa "Jun da Jo" txarangak lagunduta.

**19:15** Jolas kantak Oporretan Euskarako kideen eskutik. Herriko haur guztiek hartu ahal izango dute parte.

**20:00** Txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena, Hordago blusari omenaldia. Txupinazoa Pasuseko balkoitik, antolatzaileek txanpain botilak eramatea gogorazi nahi dute. Ondoren, buruhandiak.

**20:20** Danborrada.

**21:30** Herri afaria Olentzo jadetxearen eskutik. Afalondoren, txaranga.

**02:00** Karaokea.

## Irailak 4, ostirala

### Gazte eguna

**11:00** Jokulandia, goiz guztian zehar.

**14:00** Bertso gazte bazkaria.

**17:30** Errebal dantzaldi gidatua Aurrea plazan. Ondoren: Txokolata-da. Gero buruhandiak Joxe Arregi plazan.

**22:30** Suzko zezena.

**23:00** Kontzertuak: Lain, Gozategi eta Skakeitan.

## Irailak 5, larunbata

### Mozorro eguna

**11:00** Altxorraren bila joko. Haurrek mozorrotuta etorri behar dute etxetik, eta aurpegia margotuko zaie. Gaia: Pirata.

**12:00** Marrazki tailerra eta erakusketa. Materiala bertan izango dute marraztu ahal izateko.

**14:00** Herri bazkaria. Postre lehiaketa. Sobremesan bingoa.

**19:00** Asto karrera.

**20:00-21:30** Dantzaldia: Laket.

**23:30** Dantzaldia: Laket. Mozorro lehiaketa eta ondoren, DJ Bull.

## Irailak 6, igandea

**08:00** Diana dultzainaz lagundurik.

**11:00** Sagardo eta sardina dastaketa Urkamendiren eskutik.

**13:00** Herriko haurren euskal dantza ikuskizuna.

**16:00** VII. Joxe Arregi Mus txapelketa.

**17:30** Erraldoi eta buruhandi konpartsa, dantza herrikoiarekin.

**20:00** Berriketan, txalaparta eta flamenco ikuskizuna. Afaria plazan balkoitzak bere ogitartekoa ekarrita, mahaia eta aulkiak egongo dira.

**21:30** Txiste-kontaketa saioa.

## Irailak 7, astelehena

**17:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren eskutik, "Txo, Mikmak txikia" ikuskizuna.

## Irailak 8, asteartea

**19:00** Zizurkilgo VIII. Kros mistoa. Neska eta mutilez osatutakoa.

**20:00** Barrikotea.

**22:00** "Bazen behin herri txiki bat..." antzerki obraren proiektzioa. Zizurkilgo herritarrek egindako antzerki obra emango da pantaila erraldoian.

## Irailak 9, asteazkena

**11:30** Haur jolasak eta tailerrak.

**12:00** Meza nagusia.

**13:00** Jubilatuen jokoak.

**14:00** Jubilatuen bazkaria plazan.

**18:00** Balkoietako lore apainketa lehiaketaren sari banaketa.

**19:00** Mariatxiak, "Mariachi Azteca"-ren eskutik.

**22:00** Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Amaia Agirre. Gai-jartzailea: Igotz Alkorta.

**00:00** Melokotoiaren hileta eta lur-emaitea. Parte hartzaileei lutoz jantzi-ta joateko dei egun diete.

Ondo pasa festetan!

Ernio bidea - 7 F. Zizurkil - 943 696 257

BASERRIKO HARAGIA  
URDAITEGI BEREZIA

Jaietan ere on egin!

Bulandegi bidea, I. Zizurkil. 943 696 242

**OGI ZURI** **OGI GOXO**

**OKINDEGIA, S.L.** Lizarra-etxea, 32. Elizmendi auzoa ASTEASU ☎ 943 691 896

**OGI-ZURI** Bulandegi bidea, 1-3 ZIZURKIL ☎ 943 691 000

**OGI-GOXO** Kale Nagusia, 26 AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294

FESTAK ONDO IGARO!

Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

**Talleres**

**ARRASTOA** S.L.

Ondo igaro jaiak!

**Mandrinatzeko eta fresatzeko makina-lanak**

Ernio bidea, 25 - Poligonoa. 35. Pabilioia / 61 P.K. Zizurkil  
Tel.: 943 694 441 - Faxe: 943 694 102 - arrastoa@euskalnet.net

# “Berriketari”, flamenkoa eta txalaparta

**EUSKAL HERRIAN JAIOTAKO IKUSKIZUNA DA, IGANDE ARRATSALDEAN IKUSI AHAL IZANGO DENA.**



Euskal Herrian jaiotako proiektua da Berriketari, dantza flamenkoa eta bere musika, txalapartaren bidez, Euskal Herriko sustraiekin fusionatzen duena. Bada, irailaren 6an, igandea, arratsaldeko 20:00etan Zizurkilgo plazan eskainiko dute Berriketari ikuskizuna.

Perkusio, gitarra eta kejoen artean, dantza eta txalapartaren arteko elkarriketak entzun eta ikus daitezke, osagai horien nahasketak osatzen duen ikuskizunaren xarma. Alegria, buleria, tangoa, fandangoa eta beste hainbat erritmo ezberdin harturik, goxotasun eta energia handiko ikuskizun berezia eskaintzen du Berriketari taldeak.

Taldeko parte hartzaileen esperientzia zabalak flamenkoaren eta txalapartaren arteko sentsibilitatez beteriko doinu berriak eskaintzen ditu. Ikusizun berritzaile, aberasgarri eta poetiko ki sentibera da flamenkoaren eta euskal kulturaren maitaleentzat.

**Parte hartzaileak:**

- Dantza: Askoa Etxebarrieta Lasheras ‘La Pulga’.
- Perkusioa: Giliyo.
- Ahotsa: Angel Lopez de Toro.
- Gitarra: Simon Moreno.
- Txalaparta: Mikel Aveiro eta Adrian Larrañaga.

# Erasotzaileen aurka

Zizurkilgo Aizan feminista taldeak erasotzaileen aurkako manifestazio zaratsua antolatu du irailaren 5ean, larunbata, gaueko 21:30etan plazatik abiatuta. Beltzez jantzita, aurpegia estalita eta

txilibitu edota kazuelak ekartzeko deia egin dute antolatzaileek, soinua ateratzea baitute helburu. “Erasorik ez! Akosatzea ez da ligatzea! Jai parekideak Zizurkilgen!” deia luzatu nahi dute.

# “Bazen behin herri txiki bat”, pantailara

**MENDEURRENAREN HARIRA SORTUTAKO HERRI IKUSKIZUNAREN BIDEOA, ASTEARTE GAUEAN IKUSGAI.**



Irailaren 8an, asteartearrekin, gaueko 22:00etan plazako pantaila erraldoian proiektatuko dute herritarren artean taularatutako antzezlanak.

Joan zen maiatzaren 16an eguraldi txarrak baldintzatuta, Zizurkilgo goiko Intxaur pilotalekuan eskaini zuten Zizurkilgo Joxe Arregi plazan aurkeztekoa zen ‘Bazen behin herri txiki bat’ antzezlanak, Iraitz Lizarraga zizurkil-darraren zuzendaritzapean, 130 herritarrek parte hartzen dutena.

Zizurkilgo Tolosarengandik burujabetza lortu zuela 400 urte bete izana irudikatzen da antzezlanean eta Zizurkilgo antzinako pertsona eta

egoeratik egungoetara ibilbide luzea egiten du: Pello Mari Otaño, Teodoro Hernandorena, San Millango markesa, baserritarrak, Extremadurako bidaiariak... Herritarrek betetzen dituzte osoki antzezle, musikari, kantari, gidolari nahiz zuzendari paperak.

Zizurkilgo maila handiko sortzaileak dituela agerian utzi zuen maiatzeko saio hartan. Oraingo honetan saioa zuzenean ikusi ez zutenek pantailan ikusteko aukera izango dute eta antzezpena zuzenean ikusi zutenek gau hartako magia gogoratzea.

# Kros mistoa

Irailaren 8an, asteartearrekin, arratsaldeko 19:00etan izango da VIII. Kros mistoa, bost kilometroko luzera izango duena, zirkuituari lau itzuli egingo. Aurrez, 2002 urtean edo aurre-

tik jaiotako umeen lasterketa egingo da (0.5 kilometro). Izen-ematea doan lasterketa hasi baino ordubete lehenago. Parte hartzaileen artean afariak zozketatuko dira.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**ZIZURKILGO AIZAN FEMINISTA**

www.aizan.org

1615-2015

**Plaza Etxebarri**  
**LA FERIA**

*Taldea berriak*  
*antzezlanak*

1615-2015

www.aizan.org



# Axun Gonzalez Sorabillako jai batzordeko kidea

**JAI GUZTIETAN, BIZIKO BADIRA, EZINBESTEKO DIRA ITZALEAN ETA ISILPEAN LAN EGINGO DUTEN PERTSONAK. HORIETAKOA DA AXUN GONZALEZ, SORABILLA AUZOKO JAIETAN. POZIK JARDUTEN DU SUKALDEKO ZEREGINETAN.**

## Sorabillako jaietan lanean, sukaldean aritzen zara batik bat...

**Axun Gonzalez:** Ikaragarri gozaten dut sukaldean, eta horretan saiatzen naiz batik bat. Neu naiz ondoen dakiena zertan lagundu jaiari eta zertan ez. Esaterako, ez dut balio jende aurrean aritzeko, eta tabernako barrara ez naiz arimatzen.

## Famatuak dira salda eta txorizoa Sorabillako jaietan...

**A.G.:** Ez dago kontatu ezin den sekreturik. Genero ona behar duzu eskuartean lehenbiziko, eta hortik aurrera, maitasunez eta detaile guztiak zainduz jardun behar duzu sukaldean. Jendea maiz etorri ohi zaigu sukaldera eskerrak ematera, eta ez dakizu zenbateko satisfazioa ematen duen keinu horrek! Hurrengoan gauzak berdin, edo hobe, egiteko gogoia pizten dizute.

Gogoratzen naiz orain bi urte, mendi krosa zela eta, hamaiketakoarekin hasi aurretik nola hurbildu zitzaigun Mikel Ereñxun kantaria, esanez: "¡Me han dicho que haceis un caldo y un chorizo de la ostia! ¿Es verdad?". Bada, zoratzen joan zen Sorabillatik!

## Egitarau osotik, zein dituzu ekitaldirik gogokoena? Eta zergatik?

**A.G.:** Jai hasierako elizako kontzertua aipatuko nuke, aurren aurrenetik. Iruditzen zait kontzertu horrek solemnitetez janzten dituela jaiak. Kontzertu osoa aditzeko behar den denbora eta lasaitasuna kentzen dizkit segidan datoren zikiro jateak, baina egiten dut nire eskapadaxoa.

Eskopeteroen agerraldia ere oso gogoko dut. Desfile ikusgarria egiten dute auzoan zehar, eskopeteroek eta beraien atzetik joaten diren gaztetxoek dotore jantzitakoek. Gainera, Sorabillarentzat erreferentzia historiko polita dela iruditzen zait, iraunarazi beharrekoa. Batzuen batzuek esaten dute ez duela oinarri historikorik, baina atzera begira jartzen bagara, ohartuko gara Sorabillak bazuela bere milizia, herria izan zenean.

Azkenik, igandeko omenaldi ekitaldia nabarmenduko nuke: Andoaingo herrian merituzko zerbait egin duena gorapatzen da, herriko jendea etortzen da, gure ereserkiak abesten dira... Emozioa transmititzen duten osagai ugari biltzen dira bertan.

## Erraza al da lana eta gozamina jaietan uztartzea?

**A.G.:** Ez, baina ahalegintzen naiz, eta azken urteetan ikasi dudala uste dut. Penarik handiena beharbada, Ama Birjin eguneko mezak ematen dit. Alberto Agirre abesbatzako kidea naiz, baina ezin izaten dut elizan abestu, gero datoren hamaiketakoagatik.



Sorabillako txorixo eta salda fama ona izatearen "erruduna" da Axun, Antonio Barbadorekin batera.

**"Auzotar bezala, auzoaren bizitasunari bultzadaxoa emateko behar morala sentitzen dut"**

## Noiztik zabilta jai batzordean?

**A.G.:** Senarra (Justi Mendiluze) eta biok orain hamabost urte etorri ginen Sorabillara bizitzera. Bera berehala hasi zen kolaboratzen, eta orain bederatzai urte hil zenean, nik hartu nion erreleboa.

## Zerk bultzatzen zaitu horrenbeste inplikatzera auzoko jaiekin?

**A.G.:** Andoaingo hirigunean urtetan bizi izan naizen arren, betidanik eduki izan dut lotura sentimentala Sorabillarekin. Bertan ezkondu nintzen, semeak ere bertan ezkondu ziren, bilobek bertan egin zuten jaunartzea... Barkatuko didate beste auzoetako jaiak, baina herrian bizi ginenean ere, guretzat Sorabillakoak ziren aparteko jaiak. Ez zeukaten parekorik hemen egiten ziren bertso saioek eta bestelako ekitaldiek. Egia da urtetan aurrera gainbehera egin dutela pixka bat, baina...

Auzotar bezala, auzoaren bizitasunari bultzadaxoa emateko behar morala sentitzen dut, ahal dudan horretan. Bada jaiak barrua mugitzen ez dietela esaten didaten auzotarrak; errespeta-tzen ditut, oso subjektiboa baita gauza, baina nork bereari etsi behar dio. Ni zorionsu naiz auzoan; denekin ondo moldatzen naiz, maitatua sentitzen naiz, eta auzoarekin zorretan banengo bezala ikusten dut neure burua. 71 urte

**"Jai batzordea hamar-hamaika pertsonak osatzen dugu eta elkarrekin lanean oso armonia onean aritzen gara"**

ditut, eta indarrean naizen bitartean, kolaboratzen jarraituko dut. Gainera, jai batzordea hamar-hamaika pertsonak osatzen dugu eta oso armonia onean aritzen gara elkarrekin. Zer gehiago behar ote du pertsona batek, inguruarekin gustura sentitzeko?

## Familia guztia azaltzen zaizu egun horietan auzoan, nahiz eta ez bertan bizi ez...

**A.G.:** Txiki-txikitatik bizi izan dituzte festak, eta oraindik ere gustura asko etortzen dira edozein ekitalditan parte hartzera: izan eskopeteroak, izan haur jokoak, izan auzotarren bazkaria...

## Andoaingo herriko hainbat ekimenetan ere ez zara atzean geratzen...

**A.G.:** Auzoko bizitzan ez ezik herrikoan ere inplikatzearen aldekoa naiz. Zorionekoa naiz, Alberto Agirre abesbatzak makina bat kultur ekimen barru-barrutik ezagutzeko parada eman baitit. Egunotan, esaterako, irrikatan nago guda karlistaren antzezpenearekin; jantzi dotorea, neronek egin dut eskuz oraintxe. Parte hartzaileen aldetik eskas samar dabilela entzun dut, eta pena ematen dit horrek. Ez dakit benetan jabetzen garen antzeko kale errepresentazio historikoek zenbat indartzen duten herri sentimendua, andoaindartsuna, azken batean.

## SORABILLA JAIETAN

### EGITARAU 2015

#### Irailak 4, ostirala

- 18:00** Txupinazoa, suziariak eta kanpai erre-pika.
- 18:30** Iturzaeta Memorialeko palako bi fina-len errebantxak.  
Neskak: Izarne Oiartzabal-Ainara Abrego/Ainara Loiarde-Irati Amondarain.  
Mutilak: Julen eta Ander Loidi/Jon eta Aritz Eskudero.
- 20:00** Musika kontzertua Ertizka Otxotea. Zuzendaria, Ramon Beraza.
- 21:00** Zikiro jatea. Zozketa afalkideen artean. Ondoren, dantzaldia Los Rubi taldearekin.
- 02:00** Txokolate beroa.
- 03:00** Jai amaiera.

#### Irailak 5, larunbata

- 10:00** VII. Belkoango igoera. Binakako lasterketa ez lehiakorra. Bikote bakoitza minutu bateko tartearrekin aterako da. Belkoango gurutzerainoko joan etorria. Bikote bakoitzari denbora hartuko zaio, baino ez da sailkapena osatuko. Urtero bezala, zozketaxoa eta hamaiketako ederra (txorizoa, odolkiak, fruta, yogurrak).
- 11:00** Haur lasterketa eta jokoak: lokotxak, zakuak, pitxerrak...
- 11:30-13:30** Puzgarriak eta jumping-a.
- 17:00** Haur antzerkia. Patata Tropikalaren eskutik, "Azken eguzki-lorea".
- 18:00** Caritasen harrera etxearen Ate Irekiak Erretoretxean.
- 18:30-20:30** Puzgarriak eta jumping-a.
- 20:00** Sardina jatea.
- 20:30-22:00** El ritmo del desvan. 80ko hamarkadako pop-rock musika.
- 23:00-01:30** El ritmo del desvan.
- 01:30-03:00** DJ saioa musika karpan.
- 03:00** Jai amaiera.

#### Irailak 6, igandea

- 10:30** Diana: Eskopeteroen konpainia eta Aupa Sorabilla txaranga.
- 12:15** Omenaldi herrikoia. Nagore Aritzaga. Bera Berako jokalaririk ohia. Hiru aldiz ohorezko ligako txapeladuna eskubaloian.
- 12:30** Hamaiketako herrikoia.
- 18:00** Bertso saioa: Milan Telleria, Aitor Mendiluze, Jon Eskudero eta Oihana Iguaran. Gai jartzailea, Ion Beloki.
- 19:00** Sagardo dastaketa. Herri Kantu Kalejirak alaiturik.

#### Irailak 8, asteartea

#### Koruko Amabirjinaren eguna

- 11:30** Meza nagusia Alberto Agirre abesbatzarekin.
- 12:15** Hamaiketako auzotarrentzat.

Argazkiak, bideoak, egitaraua: aiurri.com

# Urtero bezala, giro aparta Etxeberrietan

**AUZO BAZKARIA AUZOTARTASUNA GEHIEN BIZI DUTENEN BILKURA NAGUSI BILAKATU OHI DA ETXEERRIETAN. AURTENGOA ERE EZ DA EZBERDINA IZAN. AURTEN ANDOAINEN SORTU ETA EGUN KANPOAN BIZI DEN ROSI MONTEIRO KIROLARI OHIA OMENDU DUTE.**

**E**txeberrietako auzotarrak bat eginda ibili ziren auzoko jaietan. Danborrada eta sagardo dastaketa arrakasta handiz ospatu ziren; baita ekitaldi nagusia ere: bazkari herrikoia. Azken egunean, krosaren ostean, Rosi Monteiroi omenaldia egin zioten. Monteirok Etxeberrietako auzokideak eskertu zituen: "Etorri nintzen lehenengo egunetik maitasun handiz hartu nauzue. Orain naizena zuei esker naiz, auzoari esker", azaldu zuen. Txalo zaparrada handia jaso zuen. Omenaldi ekitaldiaz gain, arratsaldean herri kirolak ere izan zituzten auzoko festak datorren urtera arte agurtzeko.



Auzo bazkaria, dantzaldia, sagardo dastaketa, danborrada... Giro ederrean bizi dituzte festak Etxeberrietan.



Rosi Monteirok auzotarren omenaldia jaso zuen lasterketan.



Lasterketa txikiko lehen sailkatuak taula gainera igo ziren.

# Hiru egunetako ospakizunak Buruntzan

**ABUZTUAREN ZORTZIAN OILASKO BILTZEAREN TRADIZIOARI EUTSI ZIOTEN. HANDIK ASTEBETERA, AMABIRJIN EGUNEAN ETA SAN ROKE EGUNEAN, OSPAKIZUN NAGUSIENAK IRITSI ZIREN.**

**S**an Martin elizaren aztarnategia paraje lasaia eta ederra da. Bertatik ikus daiteke, gainera, Andoaingo herriaren ikuspegi ezezagunena. Jai batzordeak, iaz bezala, San Roke eguneko ospakizunak bertan egitearen aldeko apustua egin zuen. Ekitaldietara bertaratu ziren auzotarren kopurua ikusita, bete-betea asmatu dute.

## PARTAIDETZA HANDIA MALKAR KROSEAN

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

Gizonezkoak:

1	El Qayed	Abderrah	Andoain	29,00
2	Etxeberria	Anartz	Idiazabal	29,46
3	Etxeberria	Liherr	Aduna	29,50
4	Iturralde	Jon	Andoain	30,00
5	Herce	Gorka	Oiartzun	30,07
6	Zelaia	Jexux	Azpeitia	30,12
7	Satrustegi	Xabier	Errazkin	30,17
8	Martiarena	Iñaki	Irun	30,56
9	Real	Jaime	Andoain	30,58
10	Uzkudun	Sergio	Hernani	31,09

Emakumezkoak:

1	Ibarbia	Aitziber	Zizurkil	32,51
2	Perez	Virginia	Gasteiz	33,17
3	Lacalle	Amaia	Andoain	39,45




Hainbat urtez meza ermitan egin eta gero, aurtan garai bateko San Martin elizaren aztarnen gainean egin zuten bigarren zuten. Askotxo izan ziren mezara hurbildutakoak.




Herriko eta auzoko dantzariak, abuztuaren 16ko ospakizunetan.



Ion Belokik eta Aitor Mendiluzek abestu zuten San Rokeren omenezko mezan.



Andoainen bizi den El Qayed izan zen irabazlea.



Aitziber Ibarbia emakumeetan lehena izan zen.



Buruntza menditik harrobiaren eta herrigunearen ikuspegi ikusgarria.

# Parte hartze eta giro ikusgarria Goiburun

**EURIAK EZ ZUEN ERAGOTZI PRIMERAKO JAIA IZATEA, ETA OSPAKIZUNETAN GOZATU EDERRA HARTU ZUTEN AUZOTARREK, ANDOAINDARREK ETA KANPOTIK ETORRITAKOEK.**

**H**erri afaria aspaldiko urtetan eginiko jendetsuena izan zen, eta bertako seme Unai Ormaetxeak abilezia erakutsi zuen guztiak barrezka jartzeko. *Abizen euskaldun 1* bakarrizketa aurkeztu zuen jaietan. Kaletxiki eta Goiburuko auzotarrek jokatu beharreko desafioak aparteko ikuskizuna sortu zuen aurretik. Azkenean, Kaletxikikoak izan ziren irabazle errebantxa honetan. Bada, bai batean eta bai bestean, herri kirolez osatutako hiru txandatik bitan gailendu ziren kaletxikitarrak. Desafioa irabazteko grina ahaztu gabe, anaitasuna eta alaitasuna izan ziren nagusi bi desafioetan, eta bi auzoko biztanleen arteko harremana estutzeko baliagarri izan zen.

Bestalde, etorkizunean kontuan hartu daitekeen bide berri bat urratu dute bi auzoek elkarrekin. Ikasgai polita erakutsi digute: herritarrak protagonista bilakatzen dituzten ikuskizunak antola daitezke, jende askoren arreta pizteko modukoak eta aurrekontu handia eta izen handiko eragileak eskatzen ez dituztenak.

Irudimena, borondatea eta jaiak ospatzeko gogoia behar, ez besterik.



**Kaletxikiko jaietan bezalaxe, desafioa kalekoen alde izan zen. Moralki ere bi auzoetako taldeak garaile izan ziren. Ikusmin handia piztu zuten.**



**Etxeberrietako jaietan jokatutako desafioaren pareko emaitzarekin erabaki zen Goiburukoa ere.**



**Goiburuarrak artoa aletzeko proban.**



**Artisautza azokan jakiak, barazkiak eta bestelako produktuak erosteko aukera izan zen.**



**Eskulan zainduak egiten ikusteko eta erosteko aukera izan zen jaietan.**

# Maldan gora eta lasterka, euripean



Lacalle, Cao eta Hernandez helmuga zeharkatuta.



Sanchez gasteiztarra, eguneko ezusteko atsegina izan zen. Maila handiko korrikalariak gainditu zituen.

## MALKAR KROSA

ABUZTUAK 8, LARUNBATA

Gizonezkoak:

1	Jon Urdangarin	40:31	Urnieta
2	Jaime Real	41:27	Andoain
3	Carmen Sanchez	42:18	Gasteiz
4	Sergio Uzkudun	42:26	Hernani
5	Borja Romero	42:52	Lasarte-Oria
6	David Cid	42:55	Lazkao
7	Ander Lazkano	43:00	Andoain
8	Haraitz Gaztelu	43:04	Elizondo
9	Ismael Mateo	43:26	Andoain
10	Patxi Blanco	43:42	Zumaia

Emakumezkoak:

1	Carmen Sanchez	42:18	Gasteiz
2	Uxune Tena	47:28	Andoain
3	Lourdes Colomo	48:41	Zizurkil

Aipagarria Carmen Sanchezen lasterketa bikaina.

# Omenaldi ekitaldia Ortzaikako karobian



Joxe Paulo Usandizagaren sendia omenaldi ekitaldian izan zen.

Indarrean dira Goiburuko gazteak, jai dotoreak antolatzen dituzte eta. Umorea gainezka dute gazte horiek, eta bikain eusten diote oilasko jokoaren usadioari.

Jai egitarauaren barruan, 2011n hil

zen Burdinako Jose Paulo Usandizaga zenari omenaldi hunkigarria eskaini zioten aurten, eta Ortzaikako karobia piztu zuten bere omenez. Joxe Ramon Berrondok Joxe Pauloren filosofia xumea laburbiltzen duen esaldia gogoan



Karobia piztu zuten Burdina taldekoek.

izan zuen: "atxurra hartuko degu, ahal deguna egingo degu, eta egina, egina geratzen da". Ion Belokik bertsoa eskaini zion: "Urtero gogoan hartu Joxe Paulo izan zena / Gogoan hartu beraren izana eta izena / Bildu ohi gera

Burdina eta familia dena / present dugula oraindik baita gauza nabarmena / Aurrera jarrai dezagun gudan da zure kemena / Ortzaikako karobian dago zure oroimena / urtero bera piztuaz bersarkatzen gaituena".



Lopez de Munain anai-arrebak txalapartan aritu ziren, omenaldi ekitaldian.



Hamaiketakoarekin amaitu zen karobiaren piztuera eta omenaldi ekitaldia.

# Santioak, Villabonako

**HIRIBURU HANDIETAN BEZALA, ZAZPI EGUN ETA ZAZPI GAUEKO JAIK VILLABONAN! URTE OSOKO ZAMAK ALDE BATERA UTZI ETA FESTARAKO TARTEA IZATEN DA, DUDARIK GABE. EKINTZAZ BETETAKO FESTA ALAIK IZAN ZIREN, GIRO ONA NAGUSITUZ.**

**O**inkari dantza taldeak jaurtita-ko suziarekin hasi ziren jaiak Amasa-Villabonan, uz-tailaren 24ko arratsaldean. Zazpi eguneko festak aurretik, gogotsu ziren billabonatarrek Santio bezperan. Dantza izan zen nagusi suziria botatzeko unean, izan ere, Oinkarik ko-reografia berritzaile eta dinamikoa eskaini zuen. Plazaren txoko ezberdinetan kokatutako gazteek dantza zati bana dantzatu, eta amaitzeko, guztiek fandango eta arin-arina egin zuten. 40. urteurren honetan, beste urte askotan zehar herria dantzan jartzen jarraituko dutela oihukatu zuten taula gainetik.

Jaia lehertu eta berehala, txaranga soinuek eta buruhandiek hartu zuten txanda. Haurrak korrika hara eta hona zebiltzan bitartean, helduak erraldioen desfileari so jarri ziren. Aurten, berritasun batekin etorri zen, gainera. Buruhandiak eta erraldoiak ez ziren kalejiran ibili ziren bakarrak, bi ipotxek ere parte hartu baitzuten: Pepita esnezaleak eta Xanti aguazilak. Ikusmin handia sortu zuten eta herriko txikienekin makina bat argazki atera zituzten.

Herrian barrena desfilatu bitartean, Onddo Gazte Asanbladak txupinazo alternatiboa jaurti zuen Gaztetxe parean. Oinkari zoriontzeaz gain, asanbladan lanean aritu direnak eta lanean jarraitzen dutenak omendu zituzten. Horren ostean, futbito finala jokatu zuten Z.E. eta Karumix taldeek, Z.E. taldeak irabazi zuelarik. Ondoren, herri afaria eta danborrada izan ziren beste urte batez.

Santio eguna ekintzaz beteriko eguna izan zen. Korrika hasi zuten goiza XXXV. herri krosean parte hartu zutenek. Proba nagusia Lurdes Colomo eta Pablo Salaberriak irabazi zuten. Herriko azkarrenak, aldiz, Leire Goenaga eta



Katalanak, eskoziarrak, hawaiarrak... parte hartzaileek Gazte eguna ikusgarri bilakatu zuten.

**Atari Bizi lehiaketan Errota kaleko 7an apaindu zuen atariagatik lehenengo saria jaso zuen Ana Goenagak**

Hassan Ait Chaou izan ziren.

Aurten legealdi berriko lehen Santio jaiak izan dira eta goizean Udalbatzak desfilea egin zuen herrian txistularien laguntzarekin. Udaletxetik elizara joan eta, meza amaitutakoan, Santio zaharren egoitza bisitatu zuten.

Bestalde, Atari Bizi lehiaketako sari banaketa egin zuten. Errota kaleko 7an apaindu zuen atariagatik eman zioten lehenengo saria Ana Goenagari. Bere ordeztan, senarrak jaso zuen saria lore sortarekin batera: Amasako Iturri-goxo jattetxean afari edo bazkari bat, eta 100 euro Villabonako dendetan erosketak egiteko. Bigarren saria Julen Terradillosek jaso zuen eta, hirugarrena, Izaskun Zarategik. Gainera, Kale Berria 19ko eraikinari aipamen berezia egin zioten, bere osotasunean zaintzeagatik.

Horrez gain, jende ugari bildu zen erraldoi eta ipotxen kalejiraren inguruan. Donostiako Irrintzi konpartsak ere parte hartu zuen Amasa-Villabonakoekin batera, eta jira eta buelta ibili ziren dultzaineroen doinuekin. Gainera, kalejiran zehar, erraldoiek eta ipotxek prestatutako dantza eskaini zuten. Hala, erraldioen eta ipotxen dantzek eta buruhandien ibilerek herritar askoren ikusmina piztu zuten berriro.

Goizari amaiera emateko, soka-dantza jendetsua eskaini zuen Oinkari dantza taldeak. Aurten, Errebote plazan izan zen eta Udalbatzak parte hartu zuen. Hala, soka jendetsu eta luzea osatu eta



*Uda honetan ere, Aiurri.com gunean edizio jarraitua: Albisteak, azken ordukoak, agenda, argazkiak, bideoak eta auzoetako jaien jarraipena*

- **Sorabillako jaiak:** Irailak 4, 5, 6, 8.
- **Elbarrenako jaiak:** Irailak 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9.
- **Urnietako jaiak:** Irailak 25-Urriak 4.
- **Udako jaiak eskualdean:** Kronikak eta argazkiak gehigarri berezian.



# Aste Nagusia



Oinkari dantza taldeak eman zion jaiari hasiera.

dantzan ibili ziren herritarren aurrean. Ikuskizun ederra eskaini zuten. Arratsaldean ere izan zuten zer egin dantzariak, Erromeri Egunaren baitan, sagardo dastaketa, trikitilariak, bertsolariak, Gozategiren kontzertua eta ondorengo Larrain-dantza antolatu baitzituzten.

Uztailaren 26an ere ekintza ugari izan zen: plater tiraketa, bola tiraldia, irriskaketa lasterketa herrikoa... Hori gutxi balitz, egun osoko festa izan zuten inude eta artzainen korpartsan parte hartu zutenek. Goizean kalejiran ibiltzeaz gain, arratsaldean arrakasta handiko emanaldia eskaini zuten, plaza lepo betetzeraino. Beroari eta nekeari aurre eginez, panpinak eta makilak eskue-tan hartu, eta dantza ikuskizun polita egin zuten.

Hurrengo eguna, astelehena, festetako laugarren eguna izan zen eta billabonatarrek ez zuten etxean geratzeko aitzakiarik izan. Arratsaldean, txirriindulari lasterketa herrikoiaz gain, sokamuturra izan zen Errebote plazan; dudarik gabe, gazteen entretenimendu nagusia,

**Onddok antolatutako bazkaria eta poteo-kalejirak kolore bizia eman zion herriari. Kultur aniztasuna gogon harturik erromatar, hawaiar, indiar, edota eskoziar mozorroak ikus zitezkeen**

hesiaren bueltan jendetza elkartu baitzen zezenen aurrean gertatzen zena ikustera. Horren ostean, txekor jana eta sagardo dastaketa izanik, herritarrak jan-edanera gerturatu ziren Txermingo ikastolara.

Jubilatuena bazkaria batetik, gazteena bestetik, denak izan ziren protagonista uztailaren 28an. Onddo Gazte Asanbladak antolatuta, bazkaria eta poteo-kalejira egin zuten gazteek Orkestra Nazionalarekin. Erromatarrak, hawaiarrak, indioak, eskoziarrak, kataluniarrak... Kultura anitzeko eguna izan zen, eta kolo-



Pepita esnezalea eta Xanti aguazila, aurtengo protagonistakoak.

rea eta bizia ezarri zieten Amasa-Villabonako kaleei. Bestalde, herriko festak kirola eginez igarotzea nahiago izan zutenak ere baziren. Izan ere, zumba eta cycling klase herrikoiak arrakasta handia izan zuten. Haur, gazte eta helduak dantzarako eta bizikletarako apropos jantzi eta, izerdi apur bat ateraz, irakasleen aginduak zuzen jarraitu zituzten.

Egun bat deskantsatzeko eduki ostean, gogoz itzuli zen herria festara. Koadrilen eguna egun seinalatua izan ohi da Santioetan eta, aurte ere, giro ederrean ibili ziren. Lagun talde bakoitzak bere kamiseta edo blusa soinean jantzi, eta umore ederra nagusitu zen bazkarian eta ondorengo kalejiran. Ez zen dantza, salto eta kolorerik faltan izan Amasa-Villabonako kaleetan.

Festak amaitzeko, San Inazio eguna errebote partidarekin hasi zuten, beste behin Ipar Euskal Herriko zaletasuna Amasa-Villabonako plazara ekarri baitzuten. Hala, bertako Behar Zana taldeak Hazparneko Noizbait taldearen aurka jokatu zuen. Lapurditarrak gailen-

duz joan baziren ere, billabonatarrek irabazi zuten 13-10eko emaitzarekin. Erakustaldi bikaina eskaini zuten bi taldeek.

Horrez gain, festetako egitarautik kanpo bada ere, babes handiko omenaldia egin zioten Remi Ayestarani. Oztopoak oztopo, Remi erail egin zutela gogoratu zuten. Remi Gogoan ekimenak omenaldi hunkigarria antolatu zuen seigarrenez, eta hitzetatik ekintzetara igarotzeko garaia dela aldarrikatu zuten: "Bada Remiri zor zaion aitortza egiteko garaia. Egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa oinarri dituen aitortza exijitzen dugu; Remi ez zelako bihotzekoak jota berez hil. Guztiok dakigu egun hartan nolako presio politikoa eta mediatikoa bizi izan zen".

Festen aurretik tentsioa nagusitu bazen ere, jaiak giro lasaian igaro dira eta Remiren anaiak azaldu bezala, Remiren presentzia inoiz baino handiagoa izan da: "Jaso dugun elkartasuna eta babesa itzela izan da. Herritar ugari gerturatu zaizkigu babesa adieraztera".



Soka-dantza jendetsua izan zen Santio egunean.



Goizean Udaltzako desfilea egin zuen herrian txistularien laguntzarekin.

# Santiotako hamaika irudi gogoangarri

**JAIK ATZEAN GERATU DIRA IKASTURTEA HASTERAKO. ZORTZI EGUNETAN ZEHAR, ORDEA, OROIMENEAN GERATZEN DIREN HAMAIKA IRUDI IZATEN DA. OROITUTAKO HURA BAKOITZAREN BIZIPENEN ETA ZALETASUNEN ARABERAKOA.**



Inude eta Artzainen korpartsa Errebote plazan eskaini zuten emanaldian.



Sokamuturrak inguruko herrietako zaletuak erakarri zituen.



Gazte Egunean flamenko eta beste jantziekin mozorrotutako koadrila.




Hawaii eta Tirol aldeko kutsua Villabonaraino iritsi zen.



Koadrilen eguneko kalejira, Arroa aldean.



Koadrila handi eta umoretsua Olaederra kiroldegiaren parean.



Hitzordu handienetakoa izan ohi da koadrilen egunekoa.



San Inazio egunean jendetza hurbildu zen Remi Ayestaranen aldeko omenaldi ekitaldira.



# Umirez beteriko jaiak Zizurkil Goian

**ZIZURKIL BEZALAKO HERRIETAN, UMOREA IZAN OHI DA JAIAREN ARDATZ. GERTURATZEN DIREN BISITARIEI POZTASUN HORI TRANSMITITZEN ASMATZEN DUTE.**

**A**buztuaren 13an ekin zioten Andra Mari jaiei. Urtero moduan, oilasko biltzaileak baserriz baseri ibili ziren oilaskoak biltzen. Eguerdiko ordu bata inguruan iritsi ziren Iriarte jate-txe parera -oilaskoz zamaturiko astoak- txupinazoa ikusteko. Aurtengo txapel eguneko "Malli" zenaren senideek eman zioten su jaien hasierako suziari. Ondoren, oilasko biltzaileek dantzarako trebezia ere badutela erakutsi zuten beren dantzaldiarekin.

Arratsaldean, arraza libreko Gipuzkoako lehen artzain txakur txapelketa ospatu zen Lartingo zelaietan. Zortzi parte hartzailek eta bederatziz txakurrek hartu zuten parte; horietako bat iazko Gipuzkoako txapelduna izandako Manuel Gorriti. Aurtengo irabazlea Jose Ramon Orbegozo izan zen Alai txakurra lagun zuelarik, 250 punturekin. Eguraldia oso atsegina ez bazen ere, bertaratu zirenek arratsalde ezberdin eta entretenigarria igaro zuten.

Herriko txikienek ere ospatu zuten beren eguna jaietan; abuztuaren 14an, hain zuzen ere. Hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera eduki bazuten ere -hala nola, krosa, buruhandiak, bazkaria...-, dudarik ez da arrakasta gehien puzgarriek, kart pistak eta jolasek izan zutela. Mutilak kart pistan ibili ziren gustuen. Neskak, berriz, partxis edota dama mahai jokoetan, baina ez ohi bezala; tamaina handituan baizik. Txikienak puzgarrietan saltoka ibili ziren.

## HERRI KIROLAK ETA SAGARDOA

Jai guztietako altxorrik preziatuena izan ohi dira kirola eta sagardoa. Bi elementu horiek izan ziren Ama Birjin eguneko protagonistak. Arratsaldean, herritarren arteko herri kirol lehiak jende ugari erakarri zuen frontoira. Kamiseta urdin eta berdez desberdintutako bi taldeek hartu zuten parte lehian. Lokotxetan, korrika, ingudean, sagarrak biltzen, trontzan..., abilezia badutela erakutsi zuten. Azkeneko proba izan zen sokatira, eta emaitza berdinketan geratu zen.

Kirol saioaren ostean, sagardo dastaketaz gozatzeko aukera izan zen. Lau sagardo zeuden aukeran: Aburuza (Aduna), Zabala (Aduna), Satxota (Aia) eta Lizeaga (Astigarraga). Edateko bakarrik ez, sabela betetzeko pintxoak ere bazeuden. Guztia Zizurkilgo eta Añorgako erraldoi eta buruhandien konpartsek alaituta.

Azken egunean, Ama Birjin bigarren, herri kirolen erakustaldia izan zen. Alde batetik, Telleria anaia harri-jasotzaileek 100 eta 115 kiloko harriak jaso zituzten; baita bola ere. Beste aldetik, Jon Irazu-Iñaki Azurmendi eta Joseba Otaegi-Joxe Mari Olasagasti aizkolariak aritu ziren. Erakustaldia zen arren, ikusleek lehia moduan bizitu zuten aiz-



**Oilasko afaria eta mozorro gauarekin eman zieten amaiera festei.**



**Oilasko biltzaileek ongi etorri ederra jaso zuten herrigunera iristean.**



**Buruhandiak edota haur ikuskizunak, gaztetxoek gogokoak dituztenak.**



**Herri kirol erakustaldia lehia bilakatu zen, ikusleek hauspoa eman eta gero.**



**Herritarren arteko herri kirol lehiak barre eta tentsio ugari sortu zuen.**

kolarien lana. Azkenik, Otaegi eta Olasagastik Irazu eta Azurmendiri hartu zioten aurre.

## MOZORRO GAUA

Azken parrandarako indarrak biltzeko,

oilasko afaria egin zuten. Mozorro gaua zela eta, jendea mozorroturik joan zen afarira. Gainera, bakarkako nahiz taldekako mozorro onenei saria banatu zitzaizen. Bakarkako saria Xabier Oiarzabalek lortu zuen: Iriarte jatetxean bi la-

gunentzako afaria. Taldekakoa, berriz, "Verano Azul" telesaila gogoan hartu zutenek lortu zuten lehen saria. Horiek hamar lagunentzako afaria irabazi zuten jatetxe berdinean. Zorionak irabazleei!

# “Lo gutxi egin, eta gora Larraul!”


**EGITARAU OPAROA LARRAULGO JAIETAKOAK, HERRITARREK SAN INAZIO EGUNETIK HASITA SAN ESTEBAN EGUNERA BITARTE NAHI ADINA OSPAKIZUN AUKERAN IZAN BAITZITUZTEN.**

**O**hi bezala, Pello Joxeperen jai-tsierarekin eta herritarrez osatutako musika konpartsarekin hasi ziren jaiak. Larraulgo pilota taldeak bota zuen suziria eta Aneli Urbietak alkateak hartu zuen hitza. Guztiaren gainera, ondo pasatzeko mezua zabaldu zien herritarrei: "Ondo pasa, ondo jan, ondo edan, ondo dantzatu, lo gutxi egin, eta gora Larraul!", oihukatu zuen. Horrez gain, aipamen berezia egin zien herrian falta direnei: "beraien hutsunea nabaritutako dugu eta beraien alde egingo dugu topa". Kantari, instrumentuak joz eta umore onean ekin zituzten festak, Pello Joxeperi bertsoak abestuz. Haurrek ere gozatu ederra hartu zuten jaietan. Larunbatean, adibidez,



beraiei zuzendutako hamaika jolas eta bazkaria izan zituzten. Horrez gain, arratsaldean animaliekin jolasteko aukera izan zuten. Poney-ak, basurde txikiak..., zezenen aurrean korrika aritzeko ausardia ere izan zuten askok.

Bertsozaleak dira larrauldarrak, urteroko bertso saiora ez baitute hutsik egiten. Aurten, eguzkitik itzalera aritu ziren bertsoan: bertsolariak oholtza gainean eguzkitan eta larrauldarrak itzalean. Beroaren eraginez, plazaren erdian jarritako aulkiak hutsik geratu ziren eta egoera horren inguruan nahiko barre egin zuten Zubeldia, Lujanbio, Egaña eta Martinek botatako bertsoekin. Ondoren, gainera, herritarrek proposatutako gaiak abestu zituzten.



# Festazaleak gogotsu ibili dira Andramarietan

**AGINTALDIA HASI BERRI, UDAL ORDEZKARIEN ESKU EGON ZEN TXUPINAZOA JAURTITZEKO ARDURA. ABUZTUAREN HAMAHIRUAN IZAN ZEN HORI, NAHIZ ETA OSPAKIZUNEKIN AURREKO ASTEBURUAN HASI.**

**E**derto ibili dira adunatarrek aurtengo Andra Mari jaietan. Txupinazoa abuztuaren 13an jaurti bazuten ere, aurreko asteburuan hasiak ziren motorrak berotzen. Asteburu horretan, 60 urtetik gorakoek bazkaria egin zuten. Hurrengo egunean, txekor jate eguna ospatu zen.

Berrikuntza moduan, Adunako udalbatzako kide berriek eman zioten hasiera jaiei. Eguraldia hala modukoa izan bazen ere, txikienek ez zuten aukerarik galdu buru-handiekin jolasean ibiltzeko. Afaltzeko ordua iritsi bitartean, triki-poteoan ibili ziren. Eguna ondo amaitzeko, Ingo al deu? musika taldeak ederki animatu zuen gaua.

Ostiralean, abuztuak 14, izan zen umeen eguna. Goizean nahiz arratsaldean puzgarrietan ibiltzeko aukera izan zuten txikienek. Tartean, indarrak berreskuratzeko, bazkaria eduki zuten ume guztiek. Bide batez musika taldeak alaitu zuen gaua.

Ama Birjin eguna dantzan ospatu zuten. Umeek ekin zioten dantza saioari. Baserritarrez jantzi eta elkarriz eskutik heldurik, frontoi erdira irten ziren txistu eta danbolinen musikapean. Bien bitartean, gurasoak adi-adi egon ziren dantzaldia ikusten; eta nola ez, tarteka



Haurrek dantza saioa eskaini zuten Axeri Dantzari hasiera eman aurretik.

argazki batzuk ateratzen. Tabernan haiketako ederra egin ondoren, helduen txanda iritsi zen. Horiek buruan zapi bat eta kolore gorriko blusa moduko bat jantzita zutelarik hasi ziren Axeri-dantzarekin. Adin ezberdinetako gizonak hartu zuten parte, eta ikusleak

zeharo animatu zituzten beren ikuslariarekin. Gauean Mikel Urdangarin abeslariaren kontzertua ikusteko aukera izan zen elizan.

Festetako azken eguna koadrilena izan zen. Ohiturari jarraituz, bazkaria eduki zuten frontoian, koadrila bakoi-

tzak beren koloreko kamiseta jantzita. Bazkaldu osteko lokuluxkak ez harra-patzeko, The Joselontxo's txarangak alaitu zuen arratsaldea. Gauean afaltzeko bokadiloak jan eta Xabi Dantzaleku Dj-ak eman zien amaiera aurtengo Andra Mari jaiiei.





# Sanmielak

2015 URNIETA

## Irailak 27 IX. Inistor jaia

Irakitegi plaza

**12:30** IX. Maldan-gorako Inistorra  
Toka Txapelketa. San Juan plaza

**14:00** Herri bazkaria.

**16:00** Bertsolariak

- Alfonso Barrio (Bilbo)
- Señal Gaztelumendi (Leizor)
- Itziar Garraioaga (Orfo)
- Nerea Eliztegi (Leizor)
- Gal Jantzak
- Amia Agiri (Villabona)

**17:00** "Urietar Prestu" 2015  
izendapena

Juxto Egaña (ostulari eta eskualtzaletan)  
zango da omerduki

**19:00** VII. Maria Arizmendi  
irrintzi lehiaketa. San Juan plaza

**Helduentzako menua  
(25 euro)**

- 1. txerriak
- 2. txerriak
- 3. txerriak
- 4. txerriak
- 5. txerriak
- 6. txerriak
- 7. txerriak
- 8. txerriak


**Haurrentzako menua  
(16 euro)**

- 1. txerriak
- 2. txerriak
- 3. txerriak
- 4. txerriak
- 5. txerriak
- 6. txerriak
- 7. txerriak
- 8. txerriak

**19:30** Herri bazkaria  
Irakitegi plaza

Herri bazkaria  
Irakitegi plaza

**IRITETAN**  
KORTU (Leizor)  
San Juan plaza  
URNIETA (Leizor)  
Irakitegi plaza





## KIROL ALBISTEAK

Larramendi txapelketaren finalak, larunbat honetan

### Euskalduna ohorezko mailan

**A**urre denboraldian sartuta dago Andoaingo futbol taldea, Gipuzkoako gorengo mailari ekiteko. Aurreko asteburuan Tolosaren aurka jokatu zuen Larramendi txapelketako final aurrekoan. 1-2ko emaitzarekin galdu zuen eta larunbat hone-

tan arratsaldeko 16:30tan 3-4. postua jokatuko du. Txapelketako finala (Hernani-Tolosa) 18:30tan hasiko da.

Denboraldi aurreko azken partidak izango dira, liga irailaren 12-13an abiatuko baita. Bertan lehiatuko da Euskalduna SD taldea, iaz denboraldi

dotorea egin eta gero igoera lortu baitzuen. Lesakan jokatuko dute lehen partida, Beti Gazteren aurka. Bigarren jardunaldian debuta egingo dute Ubitarte futbol zelaian, Andoainen bertan, Orioko taldearen aurka. Hauek ere igo berriak dira ohorezko mailara.

Piriniotan hil zen eroriko baten ondorioz, abuztuaren 10ean

### Antton Leundaren heriotza

**A**ntton Leunda Labaka 64 urteko andoainarra, abuztuaren 10ean hil zen Piriniotan, Jean Arlaud gailurra jaisten ari zela; 150 metroko malkar batetik behera erori zen.

Bakarriz zebilen, eta segurtasuneko sokak zeramatzen egun hartan. Gavarnieko gendarmek burutu zituzten gorpua erreskatatzeko lanak.

Frantziako partean dago 3.065 metro dituen Jean Arlaud gailurra. 3.000 metrotik gorako hamar gailurrez osatzen den Gours Blancs mendizerran kokatzen da, eta III. mailako zailtasuna dauka zatitxo batean. Frantziako partetik zein Huescatik (Benasque) abiatuta igo daiteke.

Mendizaleek zein familiaren lagun eta adiskideek abuztuaren 14an eman zioten azken agurra, lepo bete zen Santa Krutz ermitan egin zen hiletan elizkizunean.

Euskalduna mendigoizale elkarteak kidea zen Leunda. Elkarrekin Pirinioetara antolatuta ohi dituen irteeratan parte hartzen zuen maiz, eta eskarmen-tuko mendizalea zela esan daiteke.

Oso kirolzalea zen Antton, eta herriko krosetan ere parte hartu izan zuen korrikalari gisa, urtetan. Behobia-Donostia, adibidez, maiz egindakoa zen, eta bazekien zer den Aizkorriko mendi maratoian sufritzea.

Erabat atsekabetu zituen heriotzak Euskalduna elkarteak mendizaleak, eta albistea jakin-



Ezkerretik hasita, lehena da Antton Leunda.

dakoan (abuztuaren 14an), Arantxa Urola eta Nerea Buenok, denen izenean, kazetarien aurrean hitz egin zuten, elkarrearen egoitzan bertan egin zuten agerraldian.

Anttonek mendizaletasuni zor zion maitasuna azpimarratu zuten. Berarekin batera, azken urtetan egindako gailurrak (Petit Vignemale, Perdido, Auñamendi, Cilindro...) eta harekin igarotako momentu onak gogorra ekarri zituzten. Halaber, Anttonek, beste kiroltarako zeukan zaletasuna ere nabarmendu nahi izan zuten, lasterketa batik bat.

Argazkian, Petit Vignemale gailurrean ageri da, Inaki Gereño, Nerea Bueno eta Guillermo Alcalarekin batera. Nerea Buenok azaldu zuenez, "asko zaintzen zen, Antton sasoi oneko gizona zen. Euskaldunak Piri-

nioetarako irteerak antolatzen zituenean egokitzen ginen elkarrekin. Bidelagun jatorra zen, atsegina. Argazkia atera genuen egunean, Frantziako Pirinioetan dagoen Pont d'Espagne aterpetik abiatuak ginen. Bera aurretik joan zen eta Petit Vignemaleko gailurra bakarrik egin ondoren, oster a beherako bidea hartu zuen; guregana jaitsi zen, guri igoeran laguntzera. Denok gailurrera iritsi ondoren ateratako argazkia da, bere kamarekin".

Orain hiru urte, 61 urterekin, Mont Blanc igo zuen, eta pozez gainezka zegoen orduz geroztik; Euskaldunako kideek aitortu dutenez, bere bizitzako ilusioa bete baitzuen horrela.


Antton Leunda Iruran jaioa zen, eta Andoainen bizi zen familiarekin. Jubilatuta zegoen egun.

### Jon Gaztañagak gozo hasi du denboraldia

Andoaindarra Realak utzita Espainiako bigarren mailako Numancia taldean ari da eta, lehen bi jardunaldietan irabazi ondoren, lidergotzan daude. Gol ugari egin dituzte gainera, 9 denera. Hasiera gozoa, beraz.



### Itziar Ubillos eskubaloiko lehen mailan arituko da




Andoainen sortutako eskubaloi jokalaria estatu mailako lehen mailan arituko da Aiala Zarautz taldearekin batera. Lehen mailara igo

berria da taldea eta asteburu honetan debuta egingo dute Liga irabazteko aukera asko dituen Bera Bera taldearen aurka.

### Arizagari omenaldia


Nagore Arizaga andoaindarrak ekainean agur esan zion eskubaloitari, eta igande honetan bere kirol jardueran egindako lana omenduko dute Sorabillako jaietan. Lehen mailan hainbat denboralditan aritu da, lorpen handiak eskuratzeraino.



### Izaskun Olasagasti Europako txapelketan

Abuztuaren Mazedonian Europako jubenil mailako txapelketan hamargarren postua lortu du Espainiako selekzioak. Tartean izan da Leizaran taldeko Izaskun Olasagasti jokalaria.

Txapelketako albiste onena, munduko txapelketarako txartela lortu izana. Pozez gainezka ospatu zuten. Argazkia sailkapena lortu zutenekoa da. Bertan Izaskun eserita agertzen da, aurrean



Jenaro Felix entrenatzailea duela. Esperientzia bikaina izan da andoaindarrarentzat. 9-10. posturako lehiatan, bestalde, Alemaniak 30-29 irabazi zuen.



## KIROL ALBISTEAK

### Berrikuntza handiak aurtengo Herri Biran



Irailaren 12an, larunbatarekin, Urnietako Herri Biraren edizio berria ospatuko da. Berrikuntza handiekin dator, ibilbidea moldatu egin baitute eta horrez gain jarduerak ere zabaldu egin dituztelako. Irteera eta amaiera Idiazabal kalean egingo dute, Kiroldigitik gertuago.

#### IRAILAK 12, LARUNBATA

**17:30** Nordic Walking irteera. 10 kilometro, ibilbideari bi itzuli.

**18:00** Herri Bira, lasterketa laburra. 5 kilometro, ibilbideari itzuli bakarra.

**18:00** Herri Bira, lasterketa. 10 kilometro, ibilbideari bi itzuli.

Ohi bezala, sariak eta zozketa izango dira parte hartzaileentzat.

#### IZEN-EMATEA

Aurretik herrikrossa.com webgunean.

### Binaka irtengo dira Sorabillako lasterketan

#### IRAILAK 5, LARUNBATA

**10:00** Belkoango igoera. Bikote bakoitza minutu bateko

tartearekin aterako da. Belkoango gurutzerainoko joan etorria.

### Ganbara saski taldea

Aste honetan ekin diote denboraldi berria prestatzeari. Oraindik ere jokalaria berriak hartzeko prest daude, maila guztietakoak: lehen urteko

infantilak, bigarren urteko infantilak, kadete eta junior taldeak. Senior mailako taldea ia erabat lotuta dute. Allurralden elkartu ohi dira.

### Nahikari Garcia Europako azpi txapelduna



Urnietako futbol jokalaria urrats sendoak ematen ari da bere kirol jardunean. Berriki igo dute 19 urte azpikoen mailara eta dagoeneko Real Sociedad taldeko jokalaria garrantzitsua da.

Israelen jokatu zuen finalean Suediaren aurka 1-3 galdu bazuten ere, UEFAk Nahikari Garcia hamaikako onenean sartu zuen. Aurreko asteburuan selekzioarekin lan saioetan aritu da, Madrilan.

## Urnietako futbol taldeen aurkezpena, aurten plazan

Urnietako Kirol Elkarteko futbol atalak herritarren aurreko urteroko agerraldia egingo du larunbat honetan. Aurkezpen ikusgarriekin, gainera. Herriaren sorreraren 400. urteurrenari keinu eginez, jokalaria eta talde guztien aurkezpena herriko plazan egingo dute. Eta bertan taldeko argazkia egingo dute, udaletxearen saihesten batean ipinita. Jokalariak 11:00k aldera Buruntzantz taldearekin kalejiran abiatuko dira, San Juan plazara. 11:30ean hasiko da aurkezpena, Egapeko dantzarien parte hartzearekin.



Ohiokoa baino ikusgarriagoa izango da aurtengo taldeen aurkezpen ekitaldia.

## Julen Gabirondo urnietarra EHko sega txapelduna

Hogeita sei urteko urnietarra Euskal Herriko sega txapeldun berria da, abuztuaren 9an Asteasuako Sarobe baserriko belardian jokatu zen txapelketa irabazi ostean. Ez zen favoritoen artean agertzen, eta ezustean hartu zituen mendean gainerako parte hartzaileak, batik bat aurreko bi urtetan txapelduna izan zen Igor Esnaola legorretarrarekin lehian aritu ostean. 3.735 kilo moztu zituen Julenek, Esnaolak baino 40 kilo gehiago. Gabirondok orain bi urte ekin zion segari, Xoxokako jaietan hain zuzen. Mikel Garaialde adiskideak lagunduta animatu zen, nahiz eta



Argazkian, Mikel Garaialde eta Julen Gabirondo.

artean segarik hartu gabea izan. Nolanahi ere, oso denbora gutxian mutilak erakutsi duen

sasoa eta motibazioa erabakiorrak izan dira iritsi den lekura iritsi ahal izan dadin.

#### DESAFIOA SORABILLAN

Andoaingo bi tabernarien arteko pala desafioa jokatu zen abuztuaren 25ean, Sorabillako pilotalekuan. Batetik, Zumea plaza inguruko Txalaka tabernako Iñaki Eleno. Eta bestetik Etxeberrietako Ainxia tabernako Xabi Garcia Caballero.

Txalakakoa izan zen garaile, 22ra jokatu eta bi partidak irabazi eta gero. 500 euro jarri zituzten jokoan, eta galtzaileak diru hori Caritasi



ematea hitzartu zuen. Desafioak ikusle askoren arreta piztu zuen, eta bertaratu ez zirenek ere internet bidez zuzenean ikusi ahal izan zuten, sarearen irekitasuna, neutraltasuna eta askatasuna bermatzen duen guifinet proiektuaren aldeko kideen ekimenari esker.

Irudian, Caballero txapel-dun-ordearen saria eskuratzen. Urdinez, Eleno desafio-ko txapelduna.

**Oharra:** Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

**Oharra:** Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larromendi  
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

#### Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

#### Aiurri eskuragarri:

Etxebete harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

#### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
Webgunea: www.aiurri.com

#### Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Olatz Lasa, Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga eta Izarne Olano.

#### Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

#### Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.  
www.aiurri.com.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

#### Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

#### Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

IRAILAREN 3TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Jaiak

### Andoain, Sorabilla

- Irailaren 4tik 9ra.
- Irailak 4, ostirala:**  
18:00 Txupinazoa.  
18:30 Pala partidak.  
20:00 Ertizka Otxotea.  
21:00 Zikiro jatea.  
02:00 Txokolate beroa.  
03:00 Jai amaiera.
- Irailak 5, larunbata:**  
10:00 Belkoango igoera.  
11:00 Haur lasterketa.  
11:30-13:30 Puzgarriak.  
17:00 Haur antzerkia.  
20:00 Sardina jatea.  
23:00-01:30 Musika.  
01:30-03:00 DJ saioa.  
Egitarau osoa, gehigarri berezian.

### Urnietan, Sanmielak

- Irailaren azken asteburuan eta urriko lehen asteburuan.

## Farmaziak

### Eskualdea

- Guardiako farmaziak.
- Andoain:**  
Ansa, larunbat eta igandea.  
Gorospa, larunbat goiza.
- Urnietan:**  
Urrutia, Hernani.
- Eskualdea, gaeuz:**  
Etxebeste.  
Elkano, 9. Hernani.

## Odol-emaileak

### Andoain, anbulategia

- 18:30-20:30.  
Irailak 8, asteartea.

### Urnietan

- Anbulatorio zaharra.  
18:30-20:30.  
Irailak 9, asteazkena.

## Batzarra

### Urnietan

- Hileko azken asteartea San Miguel eguna izanik, aste-bete aurreratuko da Udalen ohiko batzaraldia.  
Irailak 22, asteartea.

## Zerbitzuak

### Urnietan

- Urnietako Gaztegunea, Gazte informazio puntua. Ordutegia irailaren 25era arte: 10:30-13:00.

### Andoain

- Iraila hasterekin batera, Hiribus herri barruko bus zerbitzua martxan jarri dute berriro.
- Dagoeneko ohiko ordutegian zabaltzen ari dira liburutegia.
- Liburutegia**  
Astelehena-osteguna:  
10:00-13:00 / 16:30-20:30.  
Ostirala: 10:00-19:00.
- Fonoteka-Bideoteka**  
Astelehena-osteguna:  
10:00-13:00 / 17:00-20:00.  
Ostirala: 10:00-19:00.

## Irteerak

### Andoain

- Euskalduna mendi taldearekin, Pirinioetara irteera. Izen-ematea: 943 592 232. Irailak 12-13.
- Santa Krutz erretirodunen zentroak antolatuta, Zangotzara irteera. Hamaiketako, bisitaldia, bazkaria eta arratsaldean Sos del Rey Catolico herriari bisitaldia. Prezioa, 37 euro.  
Irteera: 09:00, Olagaian.  
Irailak 19, larunbata.

## Bertsotegia

### Urnietan, Oianume

- Miela batzordeak antolatuta, bertso afaria Sanmielen atarian. Bertsolariak Agin Laburu eta Anjel Mari Peñagarikano izango dira. Izen emateko eta ordaintzeko epea zabalik dago Oianumen bertan eta Xauxar eta Kanto tabernetan. Ezinbestekoa da alde zurrik izena ematea. Prezioa: 25 euro.  
21:00. Oianume.  
Irailak 19, larunbata.

## Gudua

### Andoain

- Andoaingo Guduaren antzezpena, Andoaingo herri-gunean.  
17:15 Zumea plaza.  
17:15 Goikoplaza.  
Irailak 12, larunbata.

## Ikastaroak

### Urnietan, Sarobe

- Antzerki tailerren edota Udalen ikastaroetan izena emateko aukera zabalik. Informazio osagarria, alboan. Sarobe: 943 00 80 42.
- Kiroldegiko eskaintza: Spinning, aerobika, tonifikazioa, adinekoentzat gimnasia, zumba...  
Izen emateko epea:  
Irailak 12, larunbata.

### Andoain

- Kirol eta jarduera fisikoen ikastaroen eskaintza prest dute Allurralden.  
Hasiera: Irailak 16.
- Pintura, arte aplikatuak, egur-taila.  
Izen ematea: Ataria, Bastero.  
Zuena elkartearen ikastaroak, aukera zabalik.  
Informazioa: 606 92 96 97.

## Hitzaldia

### Andoain

- "Minetik mugimendura", adinekoen zuzenduta, ariketa fisikoen inguruan. Ariz Agirre eta Ander Azkue fisioterapeuten eskutik.  
19:00 Urigain.  
Irailak 16, asteazkena.

## Iñistor Jaia


### Urnietan

- Juxto Egaña Urnietar prestu izendatuko dute. Toka txapelketa, bazkaria, bertsolariak, omenaldia eta irrintzi lehiaketa. Bazkarirako txartelak Kantoin eta Gurian salgai.  
Irailak 27, igandea.

## ZORION AGURRAK

ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK	ZORIONAK
				
<b>Enara</b> Ichazozure 4garren urtebetetzean, abuztuaren 15ean! Oier, amaitxo, aitako eta etxekoak. <b>ANDOAIN</b>	<b>Laiene</b> Arteagak 7 urte bete zituen abuztuaren 24an. Familia osoaren partez muxu handia. <b>ANDOAIN</b>	<b>Zorionak Aratz!</b> Uztailaren 26an 6urte. Asko maite zaitugu. Aita, ama, Kimetz, Arane eta amona txabak. <b>URNIETA</b>	<b>Abuztuaren 3an</b> 11 urte bete zituen <b>Eñaut</b> Gartemendia Iturraldekin. Jarraiezazu irribarre alai horrekin. Etxekoak. <b>ANDOAIN VILLABONA</b>	<b>Irailaren 4ean</b> Nahia 8 urte bete beteko dituzte eta oso pozik ospatuko dugu. Muxuak, etxekoak. Zorionak! <b>URNIETA</b>
				
<b>Ongietorria Nere!</b> Uztailaren 10ean jaio zen. Mila eskergure-eratozteagatik. Etxekoak. <b>ANDOAIN</b>	<b>Peru Alkainek</b> uztailaren 14an 12 urte bete zituen. Zorionak gure etxeko txapeldu-nari! <b>ANDOAIN</b>	<b>Ioritzek</b> 10 urte bete dituzte irailaren 8an. Gure futbolistak 10 urte! Ama, aita eta Odei. <b>ANDOAIN</b>	<b>Odeik</b> 5 urte bete zituen pasaden abuztuaren 28an. Gure printzea! Ama, aita eta loritz. <b>ANDOAIN</b>	<b>Irailaren 9an</b> Anne Lianek 6 urte bete dituzte. Zorionak, muxu potolo bat etxekoan partetik. <b>ANDOAIN</b>


### URREZKO EZTEIAK



Bizipen asko pasa dituzue 50 urte hauetan **Martxel** eta **Pantxikak**. Muxu handi bat zuen familiako partez eta jarrai ezazu bizipoz eta umore horrekin.

**ANDOAIN**

### ZORIONAK HIRUKOTE



**Anek** lau urte bete zituen abuztuaren 26an eta bere ahizpa pinpiriñak, **Nahia** 6 urte irailaren 9an. Osaba Arkaitzek ere urteak bete zituen abuztuaren 24an. Zenbat baina? Ondo pasa eta disfrutatu! Muxuak.

**ANDOAIN**

## Film laburren lehiaketa Andoainen



Andoainen euskarazko film laburren lehiaketa antolatu dute. Bakarka edo taldeka, lanak bi mailatan sarituko

dituzte: 16-18 urte bitartekoak eta 18tik aurrerakoak. Filmek ezingo dute 5 minutu iraupena gainditu.


Lehiaketan parte hartzeko aukera urriaren 5ean zabalduko da, azaroaren 13ra bitarte. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 3an izango da.

Film laburren lehiaketa mendeurreneko azken hiru hilabeteko egitarauan sartu dute.

# Andoaingo Gudua

1837-09-14

MUSTUAE DIA



## Andoain 2015, irailak 12

17:15 - ZUMEA PLAZA GOIKOPLAZA - 17:15  
Erlijiosak Libereiak



www.andoaingo-gudua.com



© MARIKATZ LARRENKORTU MUSEO ETXEPARRI